



ELKARRIZKETA: PEDRO HERNANDEZ, BALOREEN HEZIKETAZ

# Arrasate

P R E S S

1997ko  
martxoak 14  
355. zenb.

*Euskararen lekukoa Korrika*

IRITZIA: MALEN ERRASTI • 30 GALDERATAN: IBAN GONZALEZ  
IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA: ARRATE SAENZ DE URTURI



# RK^UZ

■ EGONGELARAKO LIBURUTEGIAK

■ LOGELAK

■ GAZTEENDAKO LOGELAK

■ SOFAK



**LARUNBAT  
ARRATSALDETAN  
ZABALIK!**



# ALTZARIAK

ARETXABALETA • Araba etorbidea, 20 • Tel. eta faxa: 79 23 51



# Istorio politak, noizko?

**N**oizbait istorio politen bat kontatzea bururatzzen bazait ere, bidezkoagoa deritzot gustoko ez dudan zerbait salatzea, bereziki herri honetan gertatuta bada. Hainbat eta hainbat komunikabidek ezkutatu edota moztortuaz, errealitate gordinetako zenbait aspektu mingarri, ezin irentsi eta zuen begi parera botako ditut.

Manipulazio, indarkeri eta (ihauteriak atzean gelditu badira ere) moztortoen garaian bizi gara. Dena ondo dago, justifikatuta, orekan -baina jendea ez dago pozik, ezta konforme ere-. Hori nabari da, eta horrek zulo asko dauzka.

Ez noa analisi politiko bat egitera, garaia aproposa den arren. Euskal Herri mailan, egoera oso gogor batean bizi gara. Gobernuak eta bere aparatuek, "todo vale" daukate erreferentziazat. Honela, ez bestela, iraun



Iker Barandiaran

**"Arrasaten gertatutako pare bat istorio tristeri buruz mintzatuko naiz, gertukoak badira ere, askorentzat urrunegi gertatzen direlako"**

ahal izango dute zorriek elikatzen, beraien burua jango duten arte. Horrela jarraituko banu, orrialdea baino aldizkaria beharko nuke.

Arrasaten gertatutako pare bat istorio tristeri buruz mintzatuko naiz, gertukoak badira ere, askorentzat urrunegi gertatzen direlako. Larunbat honetan bertan, "Emakumeen eskubideen aldeko eguna"ren ekitaldien barruan ospatu zen

manifan jazotakoa. Ertzantzek, herrian (eta nonahi) ohikoagoa egiten ari zaigun harropuz eran eten zuten kalejira jendetsua, eta zinegotzi bat atxilotzeaz gain, hainbat eta hainbat partaide gogor eraso zituzten, porrak eta pelotak erabiliz. Inongo ekintza biolentorik burutu ez zituzten arren, batzuk zauritu eta beste pila bat urduritasunez eta amorruz josi zuten.

Hilabete batzuk lehenago Kalistroetan gertatutakoa ere buruan daukat. Bertan, historikoki, gazte pila elkartzan da

lagunekin egoteko, guraso askok gogoko izaten ez badute ere. Dirudienez, uniformatu gabeko polizi pare batek "atsalde pasa" egiten zuten zelatan astean zehar, eta halako batean gazteek aspertuta eta nazkatuta, joateko esan zieten. Haiek basera deitu eta handik etorritako askok kalistroak eta plaza okupatu zuten, barruko gazteak (haurrak barne) katxeatu, beldurtu, etab. egin zituztelarik. Plazan, jende askok abutxeatu egin zituen, beraien "lana" eta jarrera salatuz. Gutxi balitz, kotxe batekin neska bat ere harrapatu zuten. Atxilotetarik ez, baina hiru gazte epaituak izango dira irainengatik.

Guzti hau jende askok ikusi zuen. Ezin izan zuten ezkutatu, horregatik nolabait estali edo justifikatu nahian, "droga trafikoaren aurkako operazio"-tzat jo zuten. Dena gezurra. Jende guztia, eta bereziki gazteria, kontrolatzea da beraien helburua, baita ere, ahal beste beldurtzea, beraien prepotentzia eta indarra, zalantzarik gabe ager dadin.

Itsu eta gor askok, guzti hau beraien erara ulertuko du; erreibindikazio politiko ugari erreprimitzen ari direnean bezala, komunikabideen sasi-arrazoi eta justifikazioak sinistuz. Kalera irten eta gauzak kontrastatu baino errazagoa da ezta? ■



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardok Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Iñaki Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitim Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goli Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaki Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Altor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbaren, Fidel Bereizbar, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Mariñe Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kori, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. **Franketxo kontzertatua.** **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESSEk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazki originala:** Jaber Ozaeta.



Arrasateko Udalaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## 355. zenbaki honetan

1997ko martxoaren 14an

Asteko agenda.....	4/5	Euren ikuspuntutik.....	12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle .....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza .....	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia .....	17/19	Ikusi eta entzun .....	33
Orain eta hemen ...	8/11	Kirolak jokoan.....	20/23	Foto zaharra .....	34

*Ikuspegia*

**Iker Barandiaran.....3**

*Euren ikuspuntutik*

**Malen Errasti .....**8

*Aurrez aurre*

**Pedro Hernandez .....**24/25

*Hogeita hamar galderatan*

**Iban Gonzalez .....**30

*Asteko gaia*

**Korrika:**

**euskararen lekukoa**

**esku esku .....**17/19

Euskararen aldeko ekitaldi garrantzitsuenaren historia eta xehetasunak.





# 14

ostirala

■ ZINEA

*El perro del Hortelano,*  
7eta eta 10etan.

■ KANTALDIA

Mikel Gorosabel eta Asier Serranoren musika eta kanta emanaldia, Korrika Kulturaren barruan. Monterroñen, arratsaldeko 3etan. Sarrera: 500 pta.

# 15

larunbata

■ ZINEA

*El Club de las Primeras Esposas,* 7.30etan eta 10etan.

■ MANIFESTAZIOA

EHE taldeak deituta. "Euskaldunentzat ez dago justiziarik" lelopean. Bergaran, arratsaldeko 5etan, Herriko Plazan.

■ MANIFESTAZIOA

Itotz dela eta Iruñean egingo den manifestaziora joateko autobusa aterako da Garibaitik, arratsaldeko 3.30etan.

■ KORRIKA-KO EKINTZAK

Arrasateko trikitilarien kalejira arratsaldeko 7.30etan.

■ E.H.E. DISKAREN AURKEZPENA

Bergarako Jam aretoan, arratsaldeko 7etan.

■ BERTSO SAIOA

Gaia: Emakumeak. Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegi, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga. Gai jartzailea: Arantzazu Loidi. Arratsaldeko 7.30etan, Seberon.

■ ANTZERKIA

"Nueva Zaragozako Herri-tarrak". Gaueko 10.30etan, Aretxabaletako Zeraia zine-man. Sarrera: 300 pta.

■ BLUES KONTZERTUA

"Los fastuosos de Rive-ra" taldearen eskutik, gaueko 10.30etan, Aterpe tabernan. Dohainik.

■ I. SAETA LEHIAKETA

Al-andalusek antolatuta, gaueko 11etan. Dohainik.

# 16

igandea

■ ZINEA

*El Club de las Primeras Esposas,* 7.30etan eta 10etan.

■ TRIALSIN TXAPELKETA

Udalan, goizeko 10.30etan.

■ KORRIKAREN EKINTZAK

Goizeko 11.30etan kalejira Arrasate Musikalen orkestrarekin. 12.30etan herri kirolak Zaldibarren. Eguerdiko 13.00ean Arrasate Musikalen kontzertua Herriko Plazan. Arratsaldeko 4etatik 7etara umeendako gaztelu puzgarriak Herriko Plazan. 6etan Arrostitx eta Lore Gazteak taldeen dantza emanaldia. 7etan Triki Dantza eta kalejira.

# 17

astelehena

■ ZINEA

*El Club de las Primeras Esposas,* 7eta eta 9.30etan.

■ KORRIKA

Arratsaldeko 3etan korrika txikia, eta 4etan ongi-etorria Korrikari San Isidro eliza ondoan. Arratsaldeko 6etan txokolatada Herriko Plazan.

■ GURASOENDAKO JARDUNALDIAK

Gaia: nola bideratu seme-alaben agresibitatea: Hizlaria: Javier Ibañez Dorronsoro. Erguin Herri Eskolan, arratsaldeko 6etan.

# 18

asteartea

■ ZINEA

*El Club de las Primeras Esposas,* 7eta eta 9.30etan.

■ GURASOENDAKO JARDUNALDIAK

Gaia: ikasteko ohiturak. Hizlaria: Javier Ibañez Dorronsoro. Erguin Herri Eskolan, arratsaldeko 6etan.

■ ODOL ATERALDIAK

Anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

■ BATZAR NAGUSIA

AEDren Batzar Nagusia, arratsaldeko 7etan, AEDko lokaletan.



# 19

## asteazkena

### ■ GURASOENDAKO JARDUNALDIAK

Gaia: ikasteko ohiturak. Hizlaria: Javier Ibañez Dorronsoro. Erguin Herri Eskolan, arratsaldeko 6etan.

### ■ HITZALDIA

Deba Garaian dendaren bat zabaltzeko asmoa dutenei zuzenduta. Denda zabaldu aurretik zer izan behar den kontuan irakatsiko da. Hitzaldira joateko 79 30 90 telefono zenbakira deitu behar da. Dohainik, arratsaldeko 4etan.

### ■ ODOL ATERALDIAK

Anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

# 20

## osteguna

### ■ ZINE KLUBA

A Caixa, Amaia antzokian. Gaueko 9.30etan. Sarre-ra: 400 pta. Gazte Txartelarekin 350 pta.

### ■ BATZAR NAGUSIA

Txatxilipurdi elkartearen Batzar Nagusia, arratsaldeko 7etan, elkartearen lokaletan.

### ■ PINTURA ERAKUSKETA

Iñaki Rivieren pintura erakusketa martxoaren 23ra arte, Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte, eta 6etatik 8ak arte.

### ■ TAILA IKASTAROA

Arrasateko Tailaginen Elkartek, ARTEK, antolatuta.

Martxoaren 17tik aurrera tailaginen elkarte-an, Erguin kalea 19,

behea. Izenematea bi telefono hauetan: 79 40 79 (Felix) edo 79 67 64 (Imanol). Kepa Uribarrenek emango ditu eskolak.

### ■ ANTZERKIA

Molestias Clownicas. Martxoaren 21ean. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Udaleko Emakume Sailak antolatuta.

### ■ KONTZERTUA

Martxoaren 21ean, Arrasate Musikaleko

Areto Nagusian, arratsaldeko 6.30etan. Partehartzaileak: Banda Txiki, Soka taldea, Saxofon bikotea, Fagot bikotea, Flauta bikotea, Tromboi taldea....

### ■ AUTODEFENTSA IKASTAROA

Emakumeei zuzenduta dago. Apirilaren 8tik 24ra arte, Udaleko Emakume Sailak antolatuta.

Ikastaroaren emalea: Maite Monroy. Izenematea 79 41 39.



### AEDren ETA TXATXILIPURDIREN BATZAR OROKORRAK

Batzar nagusietan aztertuko diren gaiak: aurreko Batzar Nagusiaren akta onartu, 96ko jardueraren onarpena eta 96ko dirukontuen azalpena, 97ko aurrekontuen onarpena, egitasmo berriak, galde erreguak eta Zuzendaritza Batzordeko kide berrien izendapena.

- AED: Asteartean, arratsaldeko 7eta. AEDren lokaletan.
- Txatxilipurdi: Ostegunean, arratsaldeko 7etan. Txatxilipurdiren lokaletan.



Zarugalde, 46  
Tel.Faxa: 79 29 93  
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7  
Tel.: 78 05 60  
OÑATI

## PEÑAKOBA



## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala 15

- Gaueko 10ak arte: Amezueta, Santamaina.
- Gauez: Mozos, Bergara.

### Larunbata 16

- Gauez: Morales, San Andres.

### Igandea 17

- Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

### Astelehena 18

- Gauez: Español, Iturriotz.

### Astearte 19

- Corcuera, Musakola.

### Asteazkena 20

- Gauez: Irizar, Erguin.

### Osteguna 21

- Gauez: Ruiz, Maala.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

### Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------	----------

### DYA

Antzuola	78 71 57
----------	----------

### Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Onati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

### Anbulantziak

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------	----------

### Udalitzaingoak

Onati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

### Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------	----------

### Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

### Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

### Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------	----------

### Monterongo liburutegia

Monteron	77 01 05
----------	----------

### Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
------------------	----------

## ADIERAZPEN ASKATASUNA ISILARAZITA

Zutik-ek Alternatiba Demokratikoa bideoaren emanaldia asteartan eskaintzeko asmoa zuen, Euskal Herrian zehar banaturiko 16 herritan.

Horietan guztietan, Madrilgo 1. Epaitegiaren agindu baten arabera, ekin-tzok eragotzi egin zituzten, batzuetan Ertzaintzak eta beste batzuetan Polizia Nazionalak. Agindu horrek, besteak beste, zera dio: "erakunde terroristaren postulatuak jasotzen dituen bideoaren emanaldiak erakunde terroristaren ekintzak bultzatu baino ez ditu egiten; beraz, banda armatuari laguntzeagatik delitua da".

Argi eta garbi geratu da, beraz, estatuen aparatua behartzaile edo errepresibontzat zer den adierazpen askatasuna erabiltzea.

Nor da epailea zer ikus dezakegun esateko? Nor da guri informatzeko eskubidea mugatzeko?

Leku guztietan erreklasatu egin dute bideoa eta, kasu batzuetan, bideoa ikustera joan ziren guztiei identifikatzeko eskatu zieten. Gehiegizko ardura eta bi polizien arteko konpetentzia Oreretan isladatu zen; izan ere, lehendabizi Ertzaintzak bete zuen bere lana eta handik 10 minutura Polizia Nazionala agertu zen. Bilboko Alde Zaharrean, berriz, kontrakoa gertatu zen: lehendabizi Poli-

ziak hartu zuen parte eta ordu erdira Ertzaintzak. Antzeko zerbait gertatu zen Ondarroan, Basaurin eta Ermuan.

Arrasaten lehendabizi Polizia Nazionala agertu zen eta bideoaren bigarren emanaldia bukatzeaz zegoenean, bideoa erreklasatu eta arduradun baten datuak hartzen ari zirenean, Ertzaintza heldu zen. Argitu beharra dago bigarren emanaldia lehenengoan tokia txiki geratu zelako eskaini zela.

HBren Mahai Nazionalari gure elkartasuna agertu nahi diogu eta, era berean, iritzi guztiak askatasunez adieraz-

teko eskubidea exigitu nahi dugu, eta egin dugu. Poliziaren jokaerak agerian utzi du hainbat aukera politikok mugak dituztela. Zergatik? Gaur egungo marko politikoa zalantzan jartzeagatik eta botereei gustatzen ez zaizkien itereak emateagatik.

Bideo horrekin bat etorri edo ez, gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta era berean, adierazpen askatasuna ittotzen duten mugak zabaltzearen alde lan egiteko prest gaudela esan.

Zutik

## ZUZENKETAK

Joan den asteko erreportaian hainbat akats egin genituen. "Julenek ziurtatzen duenez, gaur egun kooperatibetako kontseilu sozialetan edo batzar nagusietan ez da euskararen inguruko hitz bat bera ere entzuten" idatzi genuen, eta ez da hau Julen Arexolaleibak emandako informazioa, honakoa baizik: "70. hamarkadaren amaieran euskarak bizi izandako susperraldia krisiak ito zuen eta urte luzeetan ez da euskararen normalizazioaz hitz egin izan. Gaur egun bai, gaur hasi da hitz egiten eta gero eta serioago hartzen: *Euskalanek* 1.000 bazkidetik gora, hainbat enpresa mikroplangintzak bideratzen.... Hori guztia bideratzen laguntzera dator ELIE Koop. Elkar-tea".

Bestalde "Alekooppek baietza eman dio dagoeneko ELIERi" afirmazioa ere ez da ELIEko arduradunek esandakoa.

Aipatutakoak zuzenketarik garrantzitsuenak.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22

**HIES**  
**EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



# Zertan gastatu beharko luke dirua Udalak?



**Mari Karmen Osinalde**  
**Etxekoandrea**  
(48 urte)

Aparkamendu gutxi dago herrian. Arratsaldetan ezinezkoa da aparkatzea. Erdialdean aparkalekuak falta dira.



**Rafael Hidalgo**  
**Langabezian**  
(43 urte)

Ondo legoke eskolei diru gehiago ematea, laguntza gutxi ematen zaie eta.



**Ana Sancho**  
**Langilea**  
(28 urte)

Umeendako parkeak falta dira. Musakolan, motozaleen kontzentrazioa egiten den tokian, parke eder bat egin daiteke.



**Sebe Amado**  
**Langilea**  
(39 urte)

Ez dakit zer esan, Arrasate ondo dagoela uste dut. Gauzak egiten direla uste dut.



**Mariano Romero**  
**Jubilatua**  
(66 urte)

Gauza asko falta da. Esaterako, kale askotan ez dago jartzeko bankurik eta Musakolako kiroldegia ere berritu egin behar da.



**Mari Karmen Iriberrri**  
**Etxekoandrea**  
(55 urte)

Ni Jauregibarria kalean bizi naiz, eta han ur zikinak irtetzen du. Lehenago ere saiatu dira konpontzen, baina gustatuko litzaide behingoz konpontzea. Bestalde, margina-tuendako dirua zuzentzea eskatuko nuke.



**Mikel Salaberri**  
**Langilea**  
(29 urte)

Ondo legoke Gaztetxea konpontzea. Nahiko zaharra dago, eta konponketa beharra du.



**Petra Mari Inda**  
**Etxekoandrea**  
(52 urte)

Ni Munarren bizi naiz eta ingurua ondo dago. Behar bada aparkalekuak falta dira, baina erdialdean non egin aparkalekuak?

  
**REPLAY**  
MADE IN ITALY

**MAZA**  
B O Y S

ERDIKO KALE, 42 • TEL.: 79 14 53 • ARRASATE

**SOVIET**  
URBANTRIBE  
**Levi's**  
GUESS®



## Martxoak 7, greba deialdia

**E**npresa eta ikastetxe gehienetan normaltasuna izan zen nagusi Herri Batasunak eta LAB sindikatuak deitutako greba egunean. Ikastetxe guztietako irakasleek greba ez egitea erabaki zuten eta ikasleei dagokienez, Batxilergo Institutoko eta Eskola Politeknikoko ikasle batzuk eten zituzten eskolak.

Lantegietan berriz, batzuk ez zuten asanbladarik ere egin baina kooperatibetan izan zen bozketarik. Jarraian, bozketa batzuetako emaitzak: Fagor Elektraigailuetan 1.398 langilek eman zuten ezezko botoa eta 587k aldekoa; Automotio- nen 173k ezezkoa eta 52k baiezkkoa; Ederlanen 685ek ezezkoa eta 424k baiezkkoa; Coprecin 483k ezezkoa eta 259k baiezkkoa. Alejandro Altunan, berriz, baiezkkoa ateratu zen gutxigatik: 48 langile alde azaldu ziren eta 45 kontra. Arrasateko Udaltxean ere ez zuten greba

egin: 68k ezetza eman zuten eta 45ek baiezkkoa.

### GREBA EGUNA

Martxoaren 7ko lehen orduetan normaltasuna nagusi izan zen Arrasaten. Ogia edo egunkaria erosteko aukera izan zen, eta janari denda batzuk ere at-

ak zabaldu zituzten. Ostirale- ro moduan, azoka egin zen eta banketxe gehienek pertsona itxita egin zuten lan.

Orduak aurrera egin aha- la, berriz, denda gehienak itxi egin ziren eta erdialdean, esa- terako, denda eta taberna guz- tiak itxita zeuden: batzuk gre-

barekin ados zeudelako eta beste batzuk zabalduz gero ondorioaren bat jasango ez zutenaren beldurrez. Eguer- diko ordubata t'erdietan, bes- talde, Hiper Eroski itxi zuten, ordu erdi lehenago bozketa egin eta langileek greba egi- tea erabaki zuten eta.

## Gobernu batzordeak plenoan hartutako akordioa gogoraraziko dio Ertzaintzari

Ostiralean eta zapatuan Ertzaintzak izan zuten jokae- rari buruz hitzegin zuten Herri Batasunak eta Ezker Batuak asteleheneko gober- nu bileran.

Gobernu taldeak Ertzain- tzaren jarrera salatu, eta urriaren 11ko plenoan har- tutako erabakia Ertzaintza- ri gogoraraztea erabaki du. Era berean, udaletxeko lan- gile bat jipoitua eta beste bat zauritua izan zirenez, bi lan- gile horiek jarritako sala-

ketetan laguntza eskain- tzeko gertu azaldu da Uda- la. Ugalde zinegotzia atxi- lotu izana ere salatu zen. Udalak idatziz bidaliko ditu aipatutako erabakiak Er- tzaintzara.

Urriaren 11n egindako plenoan HB eta EBaren aldeko botoekin onartu zen mozioak zera zioen: arra- satear guztiek bakean, publi- koki eta poliziak parte har- tu barik euren aldarrikape- nen alde manifestatzeko

eskubidea dutela, herritar guztiak eta zinegotziak aurrez aipatutako egoeran bitartekari egiteko legiti- matuak daudela eta azkenik, pertsona hori alkatea bada legitimitatea handiagoa dela. Gainontzeko alder- diak plenora joan ez bazi- ren ere, EAJk eta PSE-EEK idatzia ateratu zuten. Jeltza- leek aipatzen zuten, mani- festazioak jarraituko duen ibilbidearen berri eman behar zaio Ertzaintzari.



**E**guerdian egin zen lehenengo manifestazioa "Demo- krazia Euskal Herriarendako" lemapean, eta San Andres eskola parera heltzean Ertzaintzak sakabanatu egin zuen. Tentsio uneak ere bizi izan ziren, manifesta- riak eta ertzainak parez pare jarri zirenean.

Ondoren manifestariak San Andresera sartu ziren bai- na hor kargatu egin zuten Ertzaintzak.



**A**rratsaldean ere egin zen manifestaziorik, baina irten bezain Alaster Ertzaintzak geldiarazi egin zuen. Ertzainek bi lagun identifikatzea eskatu, eta eztabaidatzen egon ostean bi lagu- nek nortasun agiria eman zuten. Manifestazioak erdialdeko kaleak zeharkatu zituen beti ere ertzainez inguratuta. Sebe- ron, manifestazioa bukatutzat eman zenean, Ertzaintzak kar- gatu egin zuen.



## Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna

**E**z zen bukatu Martxoaren 8a zela eta joan den zapatu iluntzean egindako manifestazioa.

Seberotik irten, erdialdeko kaleak pasatu eta manifestariak Maalara heldu zirenean, zain zeuden ertzainek manifestazioa geldiarazi zuten manifestazioa ilegala zela, eta bi pertsonen euren burua identifikatu behar zutela esanez. Manifestariak, berriz, ekintza hori urtero egiten dutela eta identifikatzearena ulertezina zela erantzun zieten.

Une batez manifestariak ertzainen aurrean geratu ziren pasatzen uzteko eskatuz, baina Ertzaintzak ez zuen atzera egin eta hiru bider kargatu ondoren manifestazioa sakabanatu egin zen. Kargaren ondorioz sei lagun zauritu ziren, baina inor ez gomazko pelotaz. Manifestariak eta Ertzaintza eztabaidan zeudela, gainera, Joseba Ugalde atxilotu zuten identifikatzeari uko egiteagatik. Ezker Batuak zinegotziaren arabera, ertzainari plakako zenbakia ematea eskatu zion baina horrek ezetz erantzun zionez, berak ere ez zion nortasun agiria eman.

Ertzaintzaren jarrerak haserrea piztu zuen Arrasateko emakume taldeen artean, eta astelehenean prentsurrekoa eman zuten istiluak salatzeke. Prentsaren aurrean esan zutenaz, azken 18 urteetan ibilbide bera izan du manifestazioak eta inoiz ez da ezer gertatu. Era berean, Emakundera jotzeko asmoa jakinarazi zuten eta seguruen martxoaren 17an elkarriketa izango dute Emakundeko ardura-dunekin. Sinadurak biltzeko asmoa ere azaldu zuten.

### Joseba Ugaldere atxilotetaren inguruan erantzun beharko du Herrizaingo Sailak

Ezker Batua haserre agertu da Joseba Ugalde zinegotzia atxilotu izanagatik, eta zapatuko istiluen inguruan hamaika galdera luzatu ditu Atutxa sailburuak zuzentzen duen Herrizaingo Sailera. Hilabeteko epean Herrizaingo Sailak erantzunak idatziz bidaliko ditu, baina EB gustora geratzen ez bada Atutxak azalpenak ematea eska dezake.

Ezker Batuak honako galderak prestatu ditu: lehenik, Martxoaren 8a zela eta

Euskadi guztian zenbat manifestazio egin ziren eta horietatik zenbatek zuten baimena galdetzen da. Bestalde, zenbat herritan egin ziren baimen gabeko manifestazioak, eta zenbatetara bidali zen Ertzaintza. Horrez gain, baimenik ez edukitzea kargatzeko arrazoi nahikoa den galdetzen zaio Atutxari.

Arrasateri dagokionez, zapatuan zenbat ertzain bidali ziren, eta manifestazioak udalaren baimena zuela ba ote zekiten esaten da.

Zelanez, Joseba Ugalde zergatik atxilotu zuten eta ertzain bati plakako zenbakia eskatuz gero, horrek ezetza eman dezakeen azaltzea ere eskatzen du Ezker Batuak.

Astean, gainera, EBak idatzia atera du Ertzaintzaren jarrera salatzeke. Aipatutako alderdiaren ustez, manifestazioa ilegala zela esatea zentzugabea da, eta Atutxak ezin die emakumeei agindu euren eskubideak noiz eta zelan aldarrikatu behar dituzten.



**Mozioa aurkeztu Udaletxean.** Emakume kontseilua osatzen duten lau taldeek aurkeztu duten mozioa aztertuko da gaur arratsaldeko plenoan. Mozioan zera eskatzen diote udalbatzari: beharrezko instantzia guztietan zapatuko gertaerak salatzea, Arrasateko Ertzaintzari gertatutakoaren erantzunkizuna eskatzea, Herrizaingo Sailari manifestatzeko askatasuna eta adierazpen eskubidea errespetatu dezala eskatzea eta azkenik, elkartasuna adieraztea atxilotuari eta kolperen bat jaso zuten guztiei. Mozio hau aztertzeko pleno berezia deitu denez, gainontzeko gaiak aztertzen hasi baino lehenago jarriko da mahaigainean gai hori.



## Udal plenoa


# Armonian egindako aurrekontuak baina ezta

**E**AJren, PSE-EEren, EAren eta HBren aldeko botoekin, gaurko plenoan onartu egingo dira 97ko aurrekontuak. Ezker Batuak, berriz, aurka bozkatuko du eta PP aurrekontuen prozesuan sartu ez denez, seguruaren abstenitu egingo da.

Iazko aurrekontuekin konparatuta, aurtengoak giro hobeagoan egin dira. Apurka-apurka hazienda batzordean aurrekontuak zehaztuz joan dira, eta joan den astelehenean gaiaren aldeko diktamena egin zen.

Xabier Zubizarretak esan bezala, aurrekontuen prozesua ondo joan eta alderdi guztien parte hartzea egon denez, alde bozkatuko dute. Alkaterearen esanetan, kontrakoak baino aldeko arrazoi gehiago dituzte 97ko aurrekontuak onartzeko.

Ezker Batuari, berriz, oposizioaren aurrekontuak onartzeko direla iruditzen zaio eta horregatik aurka azaldu da. Gainera, gobernu taldetik irtezeko aukera berriro piztu da EBan. Hori dela eta, datorren asteazkenean alderdiko kideek asanblada egingo dute gobernutik irteten ala ez erabakitzeko. Joseba Ugalde zinegotziak adierazitakoaren arabera, kide gehienak gobernua uztearen aldekoak dira baina ez dago ziur zer erabakiko den. Ugaldek, gainera, irtezea erabakiz gero egoera berezian egongo lirartekeela esan du, "oposizioaren oposizioa izatera pasako ginateke". Asanbladan ere izango da Antxon Karre-ra, Gipuzkoako ordezkaria ere, eta amaieran prentsaurrekoa emango dute.



Ezker Batuak gobernutik irtezea erabaki dezake.

### EMENDAKINAK

Adostasunean egindako aurrekontuak izan arren, HBk eta EBak hainbat emendakin aurkeztu dute eta plenoan ezta-

baida egongo dela uste da.

HBk eta EBk lanpostu batzuk finko egitea eskatuko dute, eta era berean bi lanpostu berri sortzea: auzo batzorde-



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76



# aida ekar dezaketena

rako teknikaria eta ingurugiro teknikaria. Horrez gain, lurzoru industrialaren erosteko zuzendu den kopurutik 52 milioi kentzea proposatzen du HBk, eta EBak ere gutxitzea eskatuko du. Era berean, Mojategirako 20 milioi zuzentzea eta Makatzenako "Voladizo"aren konponketarako jarri diren 20 milioiak kendu nahi ditu HBk. Makatzenako etxebizitzaren aterpeak egoera txarrean daude eta aurrekontuetan horiek konpontzeko dirua luzatzen da, baina HB aurka azaldu da lehenengo jabegoaren gaia argitu behar dela uste duela. Une honetan, aterpe horiek ez dira Udalarenak.

EBak aurkeztutako 30 emendakinei dagokienaz, azpimarragarrienak honako hauek dira: Ferixalekuko frontoirako 150 milioiak

kentzea baina Bidegorriaren garapenerako 15 milioi eta autobus urbanoarendako 5 milioi zuzentzea. Ohi moduan, eskola publikoei eta pribatuei laguntza berdina ematearen alde ere azalduko da EBA.

## BESTE GAI BATZUK

Aurrekontuen gaia plenoaren bukaeran aztertuko da, eta aurrez beste gai batzuk jarriko dira mahaigainean, gehienak hirigintzakoak. Besteak beste, Erdiko kaleko 42 zenbakiko lokalak erostea proposatuko da. Toki horretan ekintza batzuk egitea aurreikusita dagoelako egingo du erosketa Udalak. Aipatutakoaz gain, Iturbide Egoitzarako sukaldari bat kontratatzeke oinarri arauak onartuko dira.

## Bazaingoak epaitegira

Bazaingo langileek eta horiek ordezkatzeko dituzten sindikatuek epaitegietara joko dute la aurreratu dute.

Joseba Ugaldek, Ongizate Saileko batzordeburuak, alderdi politikoek Goiz Argiren adjudikazioa ez dutela indar barik utziko jakinarazi zien langileei asteazkenean.

## Kontzentrazio isila Lau Bide

Asteazkenean kontzentrazio isila egin zuen hainbat lagunek Gomez Elosegiren heriotza salatzeke. Ohi moduan isilean egin zuten kontzentrazioa baina beste toki batean, Lau Bide plazan.

Baliteke leku aldaketa, azken hilketa salatzeke egin zen kontzentrazioan Senideekin tirabira batzuk izan zirelako egin izana. Erredakziora egindako dei baten bidez, lagun batek jakinarazi zuen Senideen enkarteladan parte hartzen ari zirenek arraultzak bota zizkietela.

## Zutik-en emisioa eten

Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak debekatu egin zituzten Zutik erakundeari, ETAren alternatiba demokratikoa azaltzen duen bideoa emititzea. Udaletxeko pleno aretora joan eta bideoa kentzeaz gain, moribait arduradun egitea eskatu zuten. Bideoaren ardura Zutik-eko kide batek hartu zuenez, lagun hori Madrilgo Entzutegi Nazionalera deklaratzera deituko dute seguruen.

Madrilgo lehen epaitegiaren aginduekin heldu ziren poliziak, eta aginduan irakur zitekeenez, bideoa emititzeak banda armatuari laguntza ematea esan gura du.

Emisioa moztu arren, Polizia Nazionala eta Ertzaintza berandu heldu ziren. Hainbat egunkaritan emisioa 7.30ak hasiko zela esaten zenez, ordu horretan heldu ziren, baina Arrasateko Zutik-ek 7etarako eginda zuen deialdia. Horrela 20 minutuko iraupena duen bideoa behintzat behin ikus teko aukera izan zen.

Jende asko gerturatu zen pleno aretora ETArekin bideoa ikustera.

# Barceló Bidaiak

## SALOU

Martxoaren 26tik 31ra edo 27tik 31ra.  
SAN FRANCISCO HOTELA \*\*\*  
Ostatu osoa  
Autobusa Arrasatek  
Irteerak: 26an 22:00 / 27an 06:45  
**26.600 pta.**

## COSTA DEL SOL- GRANADA

MARTXOAREN 31tik apirilaren 6ra.  
Ostatu osoa  
HOTELA \*\*/\*\*  
**22.900 pta.**

## GALICIA

Martxoaren 30tik apirilaren 6ra (7 egun / 6 gau)  
EN RIAS BAJAS HOTELA \*/\*\*  
Ostatu osoa + ura/ardoa  
Autobusa  
**13.000 pta.**

Maalako Errabala, 33 behe  
ARRASATE • Tel.: 79 70 11

ASTE  
SANTUA  
97



**USTEAK USTE**

*Egurra ematea gustoko?*

**J**oseba Ugaldek, EBko Arrasateko bi zinegotzietako batek, Gasteizko Parlamentura eramango du Ertzaintzak zapatuko manifestazioan izan zuen jokaera.

Ez nintzen manifestazio hartan egon eta ezta bezperako bietan ere. ATBk grabatutako irudiak ikusi ditut, hiru manifestazioetan egon ziren kazetariek berba egin dut, baita manifestazioetan parte hartu zuten batzurekin, eta izan dut manifestazioetan parte hartu ez eta etxera makilakada bero beroak hartuta erretiratu behar izan zuen lagun baten berri ere. Ondorio sinple eta argi batera iritsi naiz: Ertzaintza pasatu egin zen, bai ostiralean eta baita zapatuan ere.

Ez zirela legezkoak? Udalak onartuta dauka adierazpen askatasunaren eta manifestazio eskubidearen aldeko akordioa. Herritarren ordezkari den Udalak, ez ahaztu. Manifestazioak baketsuak diren bitartean, eta irudiek zein adierazpenek erakusten dute ostiralekoak eta zapatukoak horrelakoak zirela, Ertzaintzak ez du egurra eman eta giroa nahasteko eskubiderik. Parlamentua ados?

-----  
Beñardo Kortabarria



## Oraindik beste 364 egun

-----  
**Malen Errasti**

**F**eminismoak, mugimendu sozial eta politiko gisa, emakumeak nortasun propiodun indar sozial bihurtu nahi zituzten sufragisten zuzia jaso zuen.

Feminismoak, hasiera hasieratik, emakumeen zereginari eta zapalkuntzari dago-kionez, gizarteko sektore askoren kontzientzia esnatzea lortu zuen. Era berean, bizitza pribatuarekin edo giza-kiaren eskubideekin lotutako arloetan emakumeek bizi zuten zapalketari buruzko erreibindikazioak kaleratu zituen, besteak beste: natalitatea kontrolatzeko eta abortatzeko eskubidea, edozein sexu aukera askatasunez bizitzeko eskubidea, etxeko zereginak familian

banatzeko eskubidea, tratutxar eta etxeko biolentziaren aurka, sexu eraso eta bortxaketan aurka...

Exigentzia horietako asko gobernuari zuzenduta zeudenez, mugimendua mugimendu politiko bihurtu zuten; beste erreibindikazio asko, berriz, gizonen jarrerarekin eta emakumeak arlo pribatuko borrokan sartzeko moduarekin zeuden lotuta.

Urteetan zehar hainbeste fronteetan borrokatzen aritu

**“  
Oraindik erreibindikazio ugari daude lortzeko eta erresistentzia asko gainditzeko  
”**

ondoren, zalantzarik gabe, emakumeek aldaketa handiak egin dituzte; baina, oraindik erreibindikazio ugari daude lortzeko eta erresistentzia asko gainditzeko.

Adibide bat baino ez dugu jarriko: etxeko lanen banaketa eta zaintzeko premian dauden pertsonen ardura.

Emaitzak eskasak dira. Bi zeregin horiek oraindik emakumearen eskutan daude, nahiz eta emakume guztiek ez dituzten egiten eta kasu guztiak ez diren berdin baloratzekoak.

Etxeko lanak banatzeko proposamena jaso zuten gizonak, erresistentzia handia jarri dute inoiz beren ardura izan ez diren zereginak bere gain hartzeko. Etxeko lana eta beste batzuk zaintzea den-denon ardura izan behar da, ez emakumeena bakarrik.

Gizonezkoak dagokien zatiaz arduratzeko prest ez daudenez, zer egin dezakegu emakumeok? bi lan horiek bertan beheara utzi behingoz behar sozializat har daitezzen?

Onartezina dena da emakumeak bizitzaren beste arlo batzuetan parte-hartzeari uko egin edo mugak jarri beharra izatea, beren inguruko gizonak horietan parte hartzerik izan ez dezaten.

Malen Errasti,  
Arrasateko Emakumeen  
Asanbladaren partaidea da.

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



EUSKALDUNON

1997

Gida

Elektrikariak  
Suhiltzaileak  
Iturginak  
Aseguruak  
Sarrailagileak  
Bidaiak  
Jatetxeak

Informazioa:  
☎ 943-300222

e u s k a l d u n o n  
Egunkaria

Ileapaindegia  
Ikuskizunak  
Argazkilariak  
Haurtzaindegia  
Mekanikariak  
Dentistak...

KOMERTZIALA





## 60KO KINTOAK GARA

Edozein arrazoik balio du lagunartean bildu eta egun polit bat pasatzeko. Gizon hauek, esaterako, 60ko kintoak dira, eta zapatuan elkartu egin ziren egun eder bat pasatzeko. Lehenengo meza entzun, txikiteoa egin eta ostean bazkaria izan zuten. 60ko kintoak urtero elkartzen dira, beraz datorren urtera arte.

toak dira, eta zapatuan elkartu egin ziren egun eder bat pasatzeko. Lehenengo meza entzun, txikiteoa egin


eta ostean bazkaria izan zuten. 60ko kintoak urtero elkartzen dira, beraz datorren urtera arte.



## TOMAS ARRAINDEGIA

GOIZEZ ETA  
ARRATSALDEZ  
ZABALIK!

Olarte, 3 • ARRASATE • Tel.: 77 16 79



bidaiak-en eskutik  
Port Aventura-ra  
joan zaitezke!




**Martxoak 20, FINALAK**  
**Irabazleak Port Aventura-ra**  
**joango dira!**

**Finalak zuzenean ATBn!**



## BADAEZPADA ERE

Joan den zapatuan ere lan egitea tokatu zitzaizen emakume baserritarrei. Emakumearen Eguna zela eta, emakume baserritarrek azoka jarri zuten Seberon. Hori bai, ostean guztiak batera Gatzagara joan ziren bazkaltzera. Argazkian ikusten denez baserritarrek edozein galderari erantzuteko gertu daude, dokumentu eta guzti gainera.



## IZENA

### Amai Balda

izango da Udaleko Langai zerbitzuaren arduraduna, eta beraz berak egingo die elkarrizketak Langairen datu basean sartu nahi dutenei.



Amaiak 26 urte ditu, donostiarra da eta Euskal Filologian lizentziatua. Orain arte Hitzarmen Teknikaria izan da Arrasateko Udalean. Datorren astean zabalduko da Langairen zerbitzua Udaletxean.



Famili eta Gizarte Heziketarako zentroko 40 emakume bidaian joan ziren asteazkenean. Lehenengo Oñatira, handik Arantzazura eta ostean Loiolara joan ziren. Bazkaria, berriz, santutegi ondoko Kiruri jatetxe famatuan izan zen daptzaldi eta guzti. Emakume hauek badakite bai bidaia antolatzen.

## HORI DA BIDAIA JOATEA

### •ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95  
ARRASATE

### Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

### ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

### beatriz

oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE



# Euskal Herria



10  
aek  
korrika!

ARRASATEKO ERDU-AEK  
Garibai etorbidea, 14-3  
Tel.: 77 03 69

1997ko martxoaren 14tik 23ra  
ARANT ZAZU-BILBO

# KORRIKA!





Korrikaren hamargarren edizioa izango da aurtengoa.

Astelehenean, arratsaldeko 4etan

# KORRIKA: euskararen lekukoa eskuz esku

**E**uskal Herria Korrika lemapean abiatu da gaur bertan Arantzazutik, euskararen gordelekuetako bat izan den eta den tokitik, AEKk antolatzen duen 10. Korrika. Lerro hauek argitazterako, Aita Villasantek, aurtengo omen-duak, egingo zituen dagoeneko Arantzazu eta Bilbo elkartuko dituen Korrika honen lehen metroak; lekukoa, berriz,

Hilaren 17an pasatuko da Korrika Arrasatetik, hamargarren aldiz aurtun. Aurreko edizioetan bezala, egun hortan makina bat jende irtengo da kalera takarraren egin asmoz. Metro gutxi batzurekin konformatuko da hainbat, beste hainbatek kilometroren bat edo beste egingo du, eta beste askok Arrasateri dagokion tarte osoa egingo du. Berdin da izerdi asko edo gutxi ateratzea, kontua euskararen aldeko Korrikan parte hartzea. Horrela izango da aurtun, eta antzera izan da orain arte egin diren edizioetan.

eskuz esku ibiliko da, 2.150 kilometro osatu arte.

Gaur abiatu den Korrika-

ren lehen kilometroak, gaur baino orain 17 urte hasi ziren, orduan egin zen eta lehen

Korrika. Korrikaren erditzea kasualitateari leporatu izan zaio betidanik. Afaloste baten ondorio ei da. Eta zentzu batean horrela izan zela pentsa daiteke, baina egia sakonagoa da. 1980. urtea. AEK zorrez beteta eta Euskaltzaindiaren babesean. Babes hura ere galdu egingo zela somatzen zen. Bai euskarari kanpaina egingo zen urte hartan bertan. Kanpaina haren arrakasta ikusita



AEKren aldeko besteren bat egitea pentsatu ei zen. *Bai euskarari* kanpainan ibilitako jendearekin harremanetan jarriko ziren orduko AEKkoak. Biltzeko moduren bat aurkitu behar eta egokiena afaria egitea okurritu. Horrela, Bilboko etxe batean afari eta afa-losteko bilera zena gau oso-ko bilera bihurtu. Emankorra duda barik, aurrez hainbat jenderen buruan zegoen ideia bati forma eman zitzaio-lako. Sei hilabete luze pasatuko ziren lehen *Korrika* abian jarri orduko. Tartean hainbat lan: ibilbidea finkatu, ibilbidea ikusi, eta ideari izena eman. *Korrika* aukeratu zuten, euskarak ere etapaka egiten den lasterketa batek bezalako pre-sa zuela adieraziz.

## KORRIKAREN ANTOLAMENDUA

Marta Zubizarreta arrasatear-  
rak dauka bere gain *Korri-*  
*karen* ardura Deba Gar-  
ñan, aurtan lehenengoz. “Espe-  
rientzia aberasgarria eta neka-  
garria aldi berean. Jende asko  
ezagutzeko aukera eskaintzen  
du, koordinazio lana egitera  
behartzen zaitu; horregatik da  
estresante samarra”.



**1980. urtea**

Lema: *Korrika Euskal Herria.*  
Oñatitik Bilbora, azaroa-  
ren 29tik abenduaren 7ra.  
Omenduak: Rikardo Arre-  
gi eta Xabier Peña.



**1982. urtea**

Lema: *AEK, euskararen  
alternatiba herritarra;*  
*Korrika, herriaren eran-*  
*tzuna euskararen alde.*  
Iruñetik Donostiara, maia-  
tzaren 22tik 30era.  
Omendua: Rikardo Arregi.



**1983. urtea**

Lema: *Euskaraz eta kitto!*  
Baionatik Bilbora, aben-  
duaren 3tik 11ra.  
Omendua: Gabriel Aresti.



**1985. urtea**

Lema: *Herri bat, hizkun-*  
*tza bat.*  
Atharratzetik Iruñera,  
maiatzaren 31tik ekainaren  
9ra.  
Omendua: Pierre Laffite.



**1987. urtea**

Lema: *Euskara, zeurea*  
Hendaia-tik Bilbora, apiri-  
laren 3tik 12ra.  
Omenduak: Balentin  
Enbeita eta Lauaxeta.



Orain pare bat hilabete bildu zen Marta lehenengoz AEKko arduradunekin. Aurrez izendatutako probintzia bakoitzeko *Korrika* arduradunak eta eskualde bakoitzeko arduradunak elkartziren orduan. "Ibilbidea eza-gutu eta lana banatzeko bildu ginen denok: kilometroen banaketa eta salmenta, *Korrika* lagunen kanpaina, materiala hartu, Karra*Korrika* banatu, *Korrika* Kulturalaz hitzegi... eta herri bakoitzeko *Korrika* Batzordea antolatze-ko konpromezua hartu".

Arrasaten 15-20 lagunekoa taldea osatu da *Korrikaren* antolaketa-ko parte hartze-ko. Berandu samar osatu gainera. "Aurten kosta zaigu *Korrika* Batzordea antolatzeko. Jendea beste saltsa askotan sartuta ibili da eta azkeneko arte ez dugu gonorazko talderik bildu. Hori bai, behin osatuta lanaren antolaketa eta banaketa txapela kentzeko modukoa izan da; talde bakoitzak hartu eta bete du bere konpromezua. Arrasateko elkarteak lanean has-ten direnean fin-fin ibiltzen dira, badakite zer egin".

*Korrika* Batzordearen eginbeharrak nolakoak diren jakiteko, egokiena xehetasun

batzuren berri ematea:

- Ibilbidea: 7,5 kilometro Arrasaten, 15 zatitan banatuta. San Prudentzio hartuko da lekukoa, arratsaldeko 4ak alde-  
ra eta Mugarriko zubian eman-  
go zaie atxabal-  
tarrei 5ak ingu-  
ruan. Poliki-  
poliki joango da  
herri barruan.

Horrela esanda ez du ibilbidearenak aparteko zailta-  
sunik duela ematen, baina eman die bai lanik *Korrika* Batzordeko-  
e. "Urta-  
rrilaren 16an nazio mailatik jasotako ibilbi-  
dea ikustera joan ginen, kilome-  
tro autoa gera-  
tu eta marka txi-  
ki bat egiteko. Otsailaren 7an ibilbidea aldatu egiten zela esan ziguten, *Korrika* Bergararik etorri eta Gatzagarantz joango zela. Berri-  
ro markatu behar. Otsailaren 27an Gipuzkoako *Korrika* arduraduna etorri zen, ibilbi-

dea ezagutzeko eta benetan ondo neurtuta zegoela ikuste-  
ko. Azkenengo buelta marti-  
tzenean egin genuen, Arrasa-  
ten kilometro bakoitzeko bi errelebo daudenez, berriro markatzera"

- *Korrika*

Lagunak: Den-  
daz denda ibili beharra. Gutun bat utzi dendari bakoitzari borondatezko dirulaguntza eskatuz eta han-  
dik denbora batera jasotzera. Aurten erdialde-  
ko dendarien bil-  
keta Ibai Artek hartu du bere gain.

- Kuestazioa: Joan den asteburuan egin zuten, igandean. Eguraldiak, bai-  
na, kale, mun-  
diala egin zuela-  
ko. Ondorioz, kalean arimarik

ez. Erabakia: Diru bilketa alde zaharrean egiteaz gain, baita Urkulun, Iturripen eta Costa Fleming inguruetan ere. Jakina, txandaldun asko diru barik

poltsikoetan, eta bilketa eskas samarra. Behar bada horregatik asteburu honetan errepikatu egin dezakete.

- Karra*Korrika*: Taber-  
netan jartzen den zozketa bere-  
zia. Eskualde guztiko herrie-  
tako taberna gehienetan jarri-  
ta daude eta oso ondo ei doa.

- *Korrika* Kulturala: Ez da antolatzen den lehen aldia. Euskal Herriko taldeen bidez aurrera eramaten den kultur egitaraua, helburu argi bate-  
kin Martaren arabera. "Eus-  
kara bizitzeko esparru guztie-  
tara iristeko gai dela erakus-  
teko, ez duela mugarik eta muga horiek egotekotan gudan daudela".

Otsailaren 21a eta mar-  
txoaren 9a artean egin dira Arrasaten *Korrika* Kulturala-  
ren ekintzak. "Euskal Herri-  
ko talde asko lanaz leporaino egon da tarte horretan eta horregatik ez dugu gura genuen talderik ekartzea lor-  
tu. Dena dela hor egon dira, *Korrikaren* aurkezpena eta bideo emanaldia, *Florida Pen-  
sil* antzez-lana, asteburu hone-  
tako olerki eta kanta emanal-  
dia, eta Play-Back jaialdian *Korrikari* eskainitako tarte".

- *Korrika* Txikia: *Korrika* igaro baino lehenago ikaste-  
txeen laguntzaz eta Txatxili-  
pudi eta AED moduko taldeen laguntzaz egiten den ekitaldia. Horretarako ikastetxe guztie-  
kin batzordea sortu da, aste-  
lehenean bertan, ordubete lehe-  
nago erdialdeko kaleetan *Korrika* Txikia egin dadin.

Xehetasun gehiago aipa daitezke *Korrikaren* ingu-  
ruan, lekukoaren berrikuntza, kanta, omenduen gorabehe-  
rak eta abar., baina garrantzi-  
tsuena zera da: astelehe-  
nean arratsaldeko 4etarako euskararen aldeko metro bat-  
zuk takarraren egiteko prest egotea. AEKkoek eurek zio-  
ten: "Animo eta eutsi euska-  
raren lekukoari". ■

Beñardo Kortabarria



1989. urtea

Lema: Euskara *Korrika* eta kitto!  
Iruñetik Donostiara, api-  
rilaren 14tik 23ra.  
Omendua: On Joxemiel Barandiaran



1991. urtea

Lema: Herriak euskara, euskaraz Euskal Herria.  
Gasteiztik Baionara, mar-  
txoaren 15etik 24ra.  
Omendua: Remigio Men-  
diburu.



1993. urtea

Lema: Denok maite dugu gure herria, euskara.  
Iruñetik Bilbora, mar-  
txoaren 26tik apirilaren 4ra.  
Omendua: Martin Ugal-  
de.



1995. urtea

Lema: Jalgi hadi euska-  
raz!  
Garazitik Gasteizera, mar-  
txoaren 17tik 26ra.  
Omendua: Mikel Laboa.



*Futbolista eta eskiatzailea*

## SOKOA AZKARATE

*“Estatuko eski txapelketa esperientzia ezin hobea da”*

— Mondrako atezaina eta eskiatzailea, zer nahiago?

— Eskiatzea txapelketa aldetik gehiago gustatzen zait, baina talde giro moduan futbola nahiago dut.

— Estatuko eski txapelketan izan zara, zelako esperientzia izan da?

— Horrelako txapelketa batera joatea gauza handia da. Ni bost bider joan naiz Errioxako selekzioarekin eta dominarik ez lortu arren, pozik geratu gara egindako lanarekin.

— Euskal herriak ez du eski selekziorik?

— Bai, Kandantxun entrenatzen dute. Ni eskiatzen 3 urterekin hasi nintzen, betidanik Valdezcarayn ibili naiz eta 11 urterekin selekzioan sartu nintzen. Horregatik nago Errioxako selekzioan eta ez Euskal Herrikoan.

— Txapelketarik irabazi duzu?


— Errioxako eski txapelketa irabazi nuen

— Eskiatzeko beharrezko ezaugarriak?


— Bi aipatuko nituzke: batetik beldurrik ez izatea eta bestetik txikitatit hastea.

— Non entrenatzen duzu?

— Valdezcarayra astebururo joaten naiz eta asteen zehar Mondra emakume taldearekin entrenatzen dut Atxabalpen. Eski denboraldian ez dut futbolean jokatzeko baina bukatzen denean bai. Bietan oso gustora nago.



## FUTBOLA Derrigor irabazi behar



Iruten jokatu behar du Mondrak asteburu honetan.


Futbolean tradizio handiko taldea da Irungo Real Union, baina muga ondokoak aurre ez dabilta fin eta arrasatearrek aukera aprobetxatu beharko lukete. Alde batetik kontuan hartu behar da Mondra aurre Irungo Real Union baino gehiagodela; eta bestetik, joan den domekan Anaitasunaren aurka galdu eta gero, hiru puntuak eskuratzea ia ezinbestekoa da.

## SASKIBALOIA Kostatuko zaie bai



German Mongeren mutilek La Salle taldearen bisita jasoko dute asteburu honetan Iturripeko kiroldegian. Duda barik, oso partidu zaila Urbina Maltzagarentzat. Une honetan La Salle sailkapeneko bigarren tokian dago, Meroil liderrarekin berdinduta, eta bost partidu besterik ez ditu galdu. Gauzak nola dauden ikusita, eta sailkapenean dagoen aldea kontuan hartuta, La Salle da neurketa aurrera ateratzeko txartel gehien dituen taldea.

## ESKUBALOIA Miraria baino gehiago



Tramite hutsezko partidua izango du Arrasate Eskubaloia Taldeak datorren asteburu honetan. Matematikoki aukeraren bat edo beste badago oraindik, hori bai, asko jota promozioa jokatzeko, baina

dagoeneko esan daiteke eskubaloioek galdu dutela kategoria. Partidu biak irabazita ere, gainontzeko emaitza guztiak arrasatearren aldekoak izan beharko lirateke promozioaren miraria eskuratu ahal izateko.

## RUGBYA Lasai jokatzeko moduan



Joan den larunbatean Mungiaren aurkako partidua erosotasunez irabazi eta gero, lasaitasun handiz joango dira Gorosabelen mutilak partidua jokatzera. Une honetan taldeak bostgarren tokia betetzen du sailkapenean eta ez du ezertarako arriskurik. Horregatik, sailkapena ziurtatu eta gero, esan daiteke ondorengo partiduetan kirolaz gozatzeko aukera izango dutela rugbylariek. Lehen zita larunbatean, Zarautzen kontra eta Zarautzen.

## PILOTA Deba Arroaren azken txanpa



Asteburu beteak izan zuten Arrasateko pilotariek. Deba Arroa txapelketan Oñatin jokatu zuten, txantxikuarren aurka. Emaitzak hauek: Kadeteetan 22 eta 11 galdu, jubeniletan 9 eta 22 irabazi eta afizionatueta 22 eta 17 galdu. Maila nagusietan, berriz, Deba Arroa txapelketari bukaera emateko Eskoriatzaren aurkako neurketak, datorren asteartean arratsaldeko 7etan Iturripen pilotari kadeteak, jubenilak eta afizionatuak. Sailkatzen direnak finalerdietara, gainontzekoak agur txapelketari.



# Jarritako oztopo guztiak gainditzen saiatuko dira trialsinlariak Udalan

Gipuzkoako Trialsin Txapelketaren azken proba egingo da Udalan domeka hone-tan, goizeko 10.30etatik aurrera. Txapelketa amaitzen denean, beraz, erabaki-ko dira Udalan aurtengo junior, infantil, jubenil eta emakumezko txapeldunen izenak. Txapeldun izateko aukera askorekin bi arrasatear: Xabi Abasolo infantiletan eta Nestor Kortabarria jubeniletan. Orain arte egin diren bederatzi probetan lortutako puntuei esker, Xabi Abasolo momentu honetan infantiletako hirugarren postuan dago; Nestor Kortabarria, berriz, jubeniletako bigarrenean. Domekan ikusiko da bada arrasatearrek garaikur eta dominen saltsan sartuko diren edo ez.

Kategoria guztiak kontuan hartuta, 50 lagun inguruk hartuko dute parte Udala-ko Trialsin proban. Dena dela, partaide kopuruan gora-behera dezentegon daiteke, hasi berrien kategorian ez delako sekula partaidetza jakinik egoten.

Aurtengoarekin hirugarren aldia da Udala-ko zelaiek eta inguruek Gipuzkoako Trialsin Txapelketa hau hartzen dutena, eta esatekoa da orain arte jaso duten erantzunarekin oso pozik agertzen direla antolatzaileak.



Gipuzkoan bizikleta trebeen erabiltzen dutenak ikusgai Udalan.

Dena den, iaz proba Udala-tik jeitsi eta herri-gunera ekartzeko saiakera egin zuten, horrela ikusle gehiago biltzea lortuko zutelakoan. Ezerezean geratu zen saiakera. Antolatzaileek Santa Barbarako gunea proposatu zuten. Aurrez ere, mendiko bizikletak direla eta ez direla, arazoak izan ziren Santa Barbaran eta horregatik antolatzaileen proposamenak ez zuen Arrasateko Udalaren

oneritziarik jaso. Horregatik aurtan, beste barik, Udala-ko inguruetara jo dute zuzenean.

Aukera paregabea domekako bizikleta gainean oinez baino erosoago ibiltzen diren artista hauen trebetasuna ikusteko, gehiago gainera kontuan hartzen bada ikuskizunerako ez dagoela sarrera ordaindu beharrik. Esan bezala zita domekan, Udalan goizeko 10.30etatik aurrera.

## Sauna zerbitzua zabalik berriro Musakolan

Berritze eta hobekuntza lanen ondorioz, denboraldi batean itxita egon da Musakolako kiroldegiko sauna zerbitzua. Oraindik obrak ez dira erabat bukatu, baina astelehenaz geroztik zabalik dago erabili nahi duten guztientzat. Kiroldegian bertan adierazitakoa- ren arabera, datorren astean segida izango dute hasitako lanek eta zerbitzua era normal batean erabili ahal izango da.

## Izerdi kontuak

Zorioneko egon daitezke kirol pasiboen maitaleak, berriro ireki da eta kiroldegiko lapiko expressa. Horrela deitzen diet nik neuk saunei. Harrigarria da nola bota daitekeen hainbeste izerdi hain ahalegin gutxi eginda, zenbat eta etzanago okerrago gainera.

Mugimenduaren ondorioz sortzen den izerdia nahiago dut, gorpuz- tza behartuaz ateratzen dena. Dena dela, nahikoa meritu badute bai lapiko barruan egoten diren horiek, aguantatzea bera nahikoa kirol.

B. Kortabarria

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**URRATS**  
AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



## Txalorik beroenak

Ondo zabaldua dago kirolean txalo egiteko ohitura: jokaldi on bati, kirolariaren izerdiari, arbitroaren erabakiari (norberaren gustokoa denean), atezainaren geldiketari edo aldageletara doan jokariari. Mila arrazoi aurki daitezke horretarako. Kasu honetan, Zaldibarren badago zer txaloturik: 1) Antolakuntza, egiten duen lanagatik. 2) Aurrera egiteko txartela lortu duten taldeak, ondo merezita izan delako. 3) Ikuslegoa, txapelketa gertu gertutik jarraitzearen. 4) Sailekatzeko aukerarik eduki ez, eta lehen fase osoa bukatu arte aste-bururo astebururo jokatzea agertu diren taldeak, inportantea parte hartzea delako. Txistu kontuak, beste baterako.



## Laburrak

### ■ ZOZKETA ATBn

Asteburu honetan bertan ekin zaion fasearen zozketa, zuzen zuzenean egin zen Arrasate Telebistako Mondrasport saioan. Esti Loiti "Titu" rekin batera, han izan ziren antolakuntzako ordezkariak, bolatxoak atera eta atera. Toki arazoak direla eta, datorren astera arte ezin izango dugu Arrasate Pressen talde berrien berririk eman.

### ■ ARAU BERRIA

Fase berria, arau berria. Horrela erabaki dute antolatzaileek. Hemendik aurrera, futbolearen bezala, atezainari ezin emango zaio hankaz baloia eskuetan utzi, derrigorrez hankaz jokatu beharko du. Horrela egin ezean, bere aurkako zigorra. Buruz, bularrez edo gorputzeko beste edozein atalez ikutzen bada, atezainak izango du baloia jasotzeko eskubidea.

### ■ KORRIKA ZALDIBARREN

Astelehenean Korrika datorrenez, Zaldibarko Txapelketak ere bat egingo du euskararen aldeko ekitaldi horrekin. Horrela, domeka eguerdian, 12etan, Zaldibarko Txapelketa eten eta bi talderen arteko partidu berezia ikusi ahal izango da: alde batean Argi Ibili eta bestean Zuloak. Azken bi urteotako Zaldibarko txapeldunak aurrez aurre.

## Kazetari lanpostua

ARKOk (Arrasate Komunikabideak) aste bukaeretarako kazetari bat behar du.

Kurrikulumak: Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 ARRASATE.

Informazio gehiagorako 79 02 26 telefonoan.

  
**ARKO**  
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Irati STS	21	19	1	1	115	38	39
Betrayer	21	18	0	3	115	44	34
Lorategi	21	16	3	2	94	43	33
Arrogoi tab.	21	16	0	5	76	59	32
Aurrera bolie	21	14	2	5	102	61	30
Totem	21	12	2	7	104	58	26
Galartza kont.	21	12	2	7	89	60	26
Onaniereng	21	12	2	7	61	70	26
Abinagraus	21	11	2	8	100	61	24
Ojo Avisore	21	10	2	9	89	75	24
Me la pela	21	10	2	9	79	67	23
DKB	21	8	5	8	63	58	23
Baneuko	21	9	2	10	50	54	20
Leya	21	7	1	13	68	92	15
Potosorri	21	6	1	14	55	103	13
Alai gozokiak	21	4	5	12	49	107	13
Viboras	21	5	2	14	81	114	12
Etxe Mobil	21	1	0	20	24	175	2
Kasi ganamos	21	0	1	19	3	34	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	21	16	2	3	107	49	34
Txeyenex	21	15	4	2	95	53	32
MSM Ing. Int.	21	16	0	6	86	59	32
Nuevo tab.	21	13	4	4	117	61	30
Orlando Pirates	21	13	3	5	92	74	29
Sokoakoak	21	13	1	7	106	80	27
Bedarreta tab.	21	13	1	7	70	53	27
AC Surkos	21	12	2	7	141	76	26
Adelaida Aldibi	21	12	2	7	89	70	26
Koka Juniors	21	11	3	7	79	71	25
KK Jaurilaritzari	21	12	1	8	85	84	25
Los Dimy	21	11	1	9	86	85	23
Danok Lagun	21	10	3	8	67	69	23
Cartonajes Igamo	21	7	3	11	57	74	17
Lautherbrunnen	21	8	0	13	65	115	16
Bukanak	21	6	1	13	55	82	13
Tronkoteak	21	6	0	14	34	89	12
Borrock'n Roll	21	5	1	14	83	93	11
Anbotoste	21	4	0	16	32	59	8
Rotor de bolbog.	21	1	3	16	7	51	5
Iluna taberna	21	1	1	18	31	95	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	21	19	0	2	145	50	38
Leintz garag.	21	15	4	2	113	40	34
Okoretegi	21	15	3	3	99	42	33
Diego Antonio	21	13	0	8	112	77	26
Pepelus	21	11	4	6	86	68	26
Insert Coin	21	12	2	7	86	51	26
Fosforos	21	12	2	7	99	83	26
Ke Oxtias!!	21	11	4	6	73	58	26
Jotakabau	21	10	5	6	67	77	25
Los Innombrables	21	9	6	6	96	80	24
Motz	21	9	4	8	84	87	22
Los Heredia	21	10	2	9	81	74	22
La mosca gao	21	8	4	9	119	106	20
ZZPPW7	21	8	5	8	104	101	19
Perrahotsa	21	8	3	10	58	75	19
Sobredosis de.	21	8	2	11	75	95	18
Gualtrapas	21	6	1	14	62	106	13
Ganbelas	21	4	0	17	59	107	8
Kinder konpresa	21	4	1	15	68	115	3
Hapoel jamon	21	0	1	20	42	174	1

## Irudia



**A**rratsalde pasa ere joan izan da atezain bat Abaino gehiago futbol partiduetara. Futbito-an ez da hainbesterako, baina noiz behinka lasai egoteko tarte ere aurkitzen da.

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
Tel.: 71 20 02

## Emaitzak

### A taldea

Leya 4 - Potosorri 1  
Abinagraus 4 - DKB 2  
Betrayer 1 - Pipwhis 0  
Ojo Avisore 4 - Onaniereng 5  
Arrogoi tab. 1 - Kaxi ganamos 0  
Kriskibalda 0 - Totem 1  
Irati STS 5 - Viboras 3  
Lorategi 12 - Etxe Mobil 1  
Alai gozokiak 4 - Galartza kont. 3  
Aurrera Bolie 1 - Berango suk. 0  
Baneuko 3 - Me la pela 5

### B taldea

Perrahotsa 4 - Jotakabau 2  
Cerveceria Leintz 3 - Okoretegi 0  
Naranja Mecanica 1 - Argi Ibili 0  
Pepelus 3 - Ke Oxtias 2  
Los Heredia 9 - Ganbelas 1  
Gualtrapas 3 - Insert Coin 1  
Isabell 3 - Motz 17  
Fosforos 11 - ZZPPW7 5  
Hapoel Jamon 1 - Los Innombrables 12  
Diego Antonio 6 - Kinder Konpresa 3  
La Mosca Gao 12 - Sobredosis 1

### D taldea

Rotor de Bolb. 0 - Txeyenex 1  
Sokoakoak 1 - AC Surkos 9  
Lautherbr. 5 - KK Jaurilaritzari 16  
Iluna tab. 0 - Adelaida Aldibi 1  
Orlando Pirates 1 - Tronkoteak 0  
Bedarreta tab. 1 - Hirei 0  
Danok Lagun 2 - Los Dimy 5  
Cart. Igamo 1 - Borrock'n roll 0  
MSM Ing. Int. 1 - Anbotoste 0  
Nuevo tab. 5 - Sortu informatika 8  
Koka Juniors 1 - Bukanak 0

## Hurrengo partiduak

### 22. ihardunaldia

#### Martxoak 15. Larunbata

##### Zaldibar

7.50 Onaniereng - Los Innombrables  
9 Okoretegi - AC Surkos  
10 Betrayer - Ke Oxtias!!  
11 Irati STS - Sokoakoak  
12 Naranja Mecanica - Orlando Pirates  
13 Arrogoi tab. - Koka Juniors  
14 Jotakabau - Ojo Avisore  
15 Sortu Informatika - Fosforos  
16 Leintz garag. - Bedarreta tab.

17 MSM Ing. Int. - Abinagraus  
18 Txeyenex - Aurrera Bolie  
19 Adelaida - Pepelus  
20 Nuevo tab. - KK Jaurilaritzari

#### Martxoak 16, Igandea

##### Zaldibar

8.50 Lorategi - Me la pela  
10 Totem - Insert Coin  
11 Diego Antonio - Galartza kont.  
12 Argi Ibili - Zuloak



**PEDRO HERNANDEZ** (HEZIKETAREN SOZIOLOGIAN ADITUA)

# “Baloreen heziketa garatzeko”

**F**amilia baloreen heziketangaiaren inguruan, hainbat hitzaldi eman ditu orain gutxi Pedro Hernandez kanariarrak Hezibideko hiru ikastolatan: San Frantzisko Xabierren, San Viatorren eta Almenen. Heziketaren Soziologian aditua da La Lagunako Unibertsitatean lanean dabilen gizon hau. Euskal Herria ondo ezagutzen du Pedrok, Donostiako Majisteritza eskolan lanean ibili zen, psikologo kontsulta izan zuen Donostian, euskaldun batekin ezkondu dago eta gainera urtero pare bat aldiz etortzen da.

- Zer da zehazki Familia baloreen heziketa?

- Haurren hezkuntzari begira dagoen proiektu bat, talde oso baten beharrei erantzuten diena. Horrekin lotuta sortzen da irakasleei eta gurasoei laguntza emateko premia, gero eurek haurrei eskain die-

zaieten. Arrasateko kasuan hezkuntza kooperatibetan egon naiz. Orain pare bat urte hasi nintzen, irakaslegoa nola zuzendu ikusten, normalean garatzen ez diren baloreei bultzada bat emateko modua asmatzen, ikastetxearen plan bat eginez: zein balore bultzatu, nola bideratu, nola bultzatu klaseetan... eta gainera gurasoak jakinaren gainean jarri, dena bat da eta. Arauak eta ikasketak inportanteak dira, baina ez bakarrik: pertsona izatea, autoestima, autonomia,

besteekiko errespetoa, tolerantzia etab. ere bai.

- Baina eskola ez da ezagutzez jabetzeko?

- Orain arte horretara jo du, gai intelektualetara, matematikak, geografia, historia... baina horrekin batera jorratu beharra dago pertsona izatea, bizitzen irakastea, pertsonalitate batez jabetzea. Irakasleek normalean zailtasun handiagoa dute horrelako aurrerapausuak emateko, materialik ere ez dute, baina poliki poliki bidea eginez goaz. Zentzu horretan esan behar dut, Arrasateko kooperatibak une honean aitzindari izaten ari direla horri begira dauden ekintzak eta

“Matematikak, geografia, historia eta abarrekin batera jorratu beharra dago pertsona izatea, bizitzen irakastea, pertsonalitate batez jabetzea”



# en ari gara”

estrategiak garatzerakoan, proiektua sistematikoa dela ikusten delako.

## - Eta gurasoek hor, zer?

- Gurasoekiko kolaborazioa dago hor, ez dadila eskolan garatu familian garatzen ez dena. Familiak jakin egin behar du eskola zertan dabilen, zeintzuk balore irakasten dituen, haurraren heziketan kontraesanik egon ez dadin.

## - Erraz esaten da bizitzen irakatsi, baina hain erraza da irakastea?

- Beno, gauza denetan bezala ikasi egin behar. Irakasle goarentzat ez da erraza, berak ere ez duelako ikasi, eta ondorioz ez du horrelako eredurik. Irakasleak ikasgaiak irakasteko prestatuta daude, ez beste balore horiek garatzen irakasteko. Konturatu naiz pausuak ematen direla eta gainera batzuk oso ondo jabetu direla egoera berriaz.

Orain bi urte egon nintzen lehen aldiz ikastoletan, irakasle eta tutoreekin, egoera berriarekin lehen harreman bat izan zezaten. Aurtengo ikasturtearen hasieran, Almen ikastolan zentratu nintzen gehienbat, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleekin txandaka. Aldi berean txanda bakoitzeko irakasleak, orientazio sailarekin biltzen ziren, materialak, helburuak eta bideak lantzeko. Orain etorri naitzen egindakoa ikusi dut eta aurrerapausu inportanteak ikusi ditut, baina baita akatsak ere.

Markatutako helburuak bete egin ditugu, baina horrek ez du esan nahi arazoari irtenbidea eman diogunik. Beste ikastola batzuetan eman beharreko pausuak desberdinak izango dira, eta orain bidea markatu eta konpromezuak jarri ditugu.

## - Akatsak aipatu dituzu.

- Bai, baina ezin delako dena batera egin, horregatik bakarrik. Toki batzuetan materialak sortzea oraingoz nahikoa da, materialeak euskartzeara... baina tutoretzatik esko-

la orduetara egin beharreko jautzia oraindik egin barik dago, arazoa eskolaorduan bertan sortzen denean bertan irtenbidea ematea. Zentzu horretan aipatu dut akatsa hitza, konpondu beharreko defizit moduan. Inportanteena irakasle goaren eta gurasoen aldeketa da, ikasketei eta formazioari balio berdina eman behar zaiela konturatzea. Aurrerapausu iraultzailea da hori.

## - Iraultza horren bultzatzaile izanda, bueltatzeko gogoz zaude?

- Konpromezu ugari ditut eta denbora aldetik estu samar ibiltzen naiz beti, baina niretzat oso aberasgarria da Arrasaten garatzen ari den prozesua. Ez da gauza isolatu bat, talde baten proiektu bat da eta nekez eraman ahal izango litzateke aurrera Arrasate ez den beste toki batean, lotura handia duelako kooperatibismoaren tradizioarekin. ■

**“Gurasoekiko kolaborazioa dago hor, ez dadila eskolan garatu familian garatzen ez dena... haurrengan kontraesanik egon ez dadin”**

## LASA JATETXEA

Bergara ■ Tel.: 76 10 55

(Saihesbide irteera: Hegoaldea) ■ Eskontzarako saloi aproposa



Monumentu nazionala.

### Aste honetako degustazio menua

- Luma-gorri oilaskoaren galantina arto olioazpin erara
- Askotariko etxeko jaki keetuak ogitxoan gainean
- Legatz eta ganben creps txikiak
- Bildots izterra parrilan erromero saltsarekin
- Ezti izozkia intxaur saltsaren coulis gainean
- Ogia eta 3 urteko ardoa edo ur minerala
- Kafea eta petit-fours

**4.900 pta. + %7ko BEZ-a**

Aparkaleku pribatua, terraza eta lorategia




# Euskal Herrian Euskaraz taldearen eskutik musika ugari bihar Bergarako JAM aretoan

Euskal Herrian Euskaraz taldea hainbat ekintza burutzen ari da joan den iraila eta aurtengo martxoaren artean. Ekintza horien artean, bihar Bergarako JAM aretoan burutuko dena aipatu behar da.

Bihar, arratsaldean hasi eta berandura arte, makina bat musika talde eta kantariaren emanaldiak entzun ahal izango dira JAM aretoan. Taldeen lehenengo txanda arratsaldeko 7etan hasi eta gaueko 11ak arte iraungo du. Tarte horretan honako taldeek hartuko dute parte: Bizkaiko Txatanuga Biembe tanborre- ro taldeak, Stronk F.A.S musika talde gasteiztarak, Niko Etxartek, Orioko Gangsterrak (Txiskolako txapeldunak) eta Pi.L.T musika taldeak. Taldeen bigarren txanda gaueko 12etan hasiko da eta Exkixu, Balerdi Balerdi, Deabruak Teilatueta, Morau eta Latzen taldeek hartuko dute parte.

Kontzertuetarako sarre- rak 1.500 pta. balio du baina



Besteak beste Mikel Laboak eta Negu Gorriak parte hartzen dute aurkeztuko den diskoan.


aurrez erosiz gero 1.200. Arrasaten Irati tabernan eros daitezke sarrerak.

Kontzertu emanaldi handi honen jatorria E.H.E diskoan aurkitu behar da. Disko horretan Benito Lertxundik, Mikel Laboak, Guk, Txomin eta Urbil Artola, Anje Duhalde, Gari, Tta-

kun, Deabruak Teilatueta, Negu Gorriak, Balerdi Balerdi, Bizkar Hezurra, Bittor Aiape eta Exkixu taldeek hartu zuten parte eta Durangoko liburu eta disko azokan 6.000 ale saldu ziren. Disko horren promozioa egiteko Euskal Herriko herrialde guztietan ibili da

E.H.E diskoaren aurkezpena egiten eta bihar Bergaran egingo den aurkezpena kanpainaren azkena izango da.

E.H.E diskoaren salmenta aurrera doa eta taldeko kide batek esan bezala, 8.000 diskotik gora saldu dira dagoneko.



**Zer esango zenieke Arrasateko gazteei euskaraz egin dezaten?**

Asmatu slogan bat eta AEDra bidali.

Onenak **10.000 pta.**ko saria jasoko du.

Informazio gehiagorako zatoz AEDra edo dei egin 77 12 28 telefonora.

*Epea apirilaren  
4ean bukatzen da!*





## ARRATE SAENZ DE URTURI

# “Musika klasikoan gitarra jotzetik bizitzea oso zaila da”

Arrate Saenz de Urturi gitarrista da, baina ez rock talde batekoa, musika klasikokoa baizik. 23 urte ditu, Gasteizen bizi da eta Arrasate Musikalen gitarra klasikoko irakasle lanean dabil beste bi irakasleekin orain dela 4 urtetik. Joan den astezkenean akademiako gitarra ikasleek kontzertua eskaini zuten San Frantzisko elizan.

## — Zenbat ikasle ari dira Arrasate Musikalen gitarra ikasten?

— 40 bat, gutxi gorabehera. Hiru gitarra irakasle gaude eta bakoitzak bere ikasleak eta bere taldeak ditu. Nik adibidez, bi talde ditut: The Juristic Band eta beste bat. The Juristic Band taldean 5 gitarra daude, 3 flauta eta kontrabaxu bat. Ikasle helduek osatzen dute taldea eta nik koordinatu egiten dut, hau da, ez naiz bakarrik gitarrajoleekin aritzen. Beste taldea umeek osatzen dute.

## — Antza denez, gitarra jotzen ikasteko ez dago adinik...

— Beno, egia esan 6 urteko bi mutil dabilta ikasten eta baita 50 urtetik gorako batzuk ere.

## — Asteazkenean kontzertua eskaini zuen gitarra taldeak. Zein helbururekin?

— Jende aurrean jotzen esperientzia apur bat lortzeko eta jakina, guraso eta lagunei aukera ematea ikasleak jotzen ikusteko eta entzuteko.

## — Gero gitarra elektrikoa jotzeko joaten ote dira gazteak gitarra klasikoa ikastera?

— Batzuk bai etortzen dira asmo horrekin baina guk ez dugu gitarra elektrikoa irakasten eta gainera, ez da



gauza bera bata eta bestea jotzea. Ikasle batzuk urte bat edo bi pasatzen dituzten gitarra klasikoa ikasten eta ondoren elektrikora pasatzen dira. Beste batzuk asmo horrekin etortzen dira baina azkenean klasikarekin geratzen dira, folka eta bluesa ere irakasten dugu.

## — Gitarra ikasi ondoren, zelako irteerak daude?

— Ez da erraza gitarra jotzetik bizitzea. Musika klasikoan gitarrista moduan aritzea oso zaila da, gitarrista on asko dago baina gutxi lortzen du zeozer egitea. Elektrikoarekin beste gauza bat da. Berbena talde batean sar zaitezke eta diru apur bat irabazi. Ni gitarra klasikoko irakasle naiz baina tabernaz taberna ere ibiltzen naiz, kanta euskaldunak eta latinamerikarrak jotzen eta abesten.

## — Jotzearekin bat kantatzen irakasten diezu ikasleei?

— Letrak ematen dizkiet baina guztiak ez dira ausartzen kantatzera. Gainera ez da erreza eskuak eta ahotsa koordinatzea.

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Ikerketa museologikoa egiteko 4 beka, Arabako Foru Aldundiak deituta. Dirulaguntza: milioi bat bakoitza. Goi mailako tituludunei zuzenduta. Epea: martxoak 21.

### ■ LANA

• Deba Garaiko Mankomunitateak, garapen ekonomikorako eskualde agentzi zerbitzuko arduradun lanpostua betetzeko deialdia egin du. Epea: martxoak 24.

• Bortzirietako Mankomunitateak, euskara teknikari eta gizarte langile lanpostu bana deitu ditu. Epeak: martxoak 24 eta martxoak 27 hurrenez hurren.

• Bilboko Udalak, etxeko laguntzaren zerbitzuko koordinatzaile 3 lanpostu betetzeko deialdia egin du. Epea EBOan argitaratu zain gelditzen da.

### ■ IKASTAROA

• Irrati tailerrak: 2 aukera: irrati kontrola edo erredakzio eta lokuzio tailerra (irratsaioak egiteko). Apiriletik ekainera. Izen emateak Gazte Bulegoan.

• Autodefentsa: Apirilaren 8tik 24ra, astearte eta ostegunetan 5.30etatik 8etara, Musakolako kiroldegian.

### ■ LEHIAKETAK

• “Gaztemaniak” maketa lehiaketa, Gipuzkoako pop eta rock musika taldeei zuzenduta. Aukeratutako lanekin CD bat grabatuko da. Epea: apirilak 11.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

# Arrasate Musikaleko gitarra ikasleak kontzertua eskaini zuten San Frantzisko elizan.



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Larreako etxeetan etxebizitza salgai. Tel.: 79 36 79.
- San Josepe auzoan 65m<sup>2</sup>ko etxea salgai. Tel.: 77 08 06.
- Juan Carlos Guerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.
- Eguzki dorrean 80 m<sup>2</sup>ko etxea eta 20 m<sup>2</sup>ko garajea salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

### 2. Erosi

- Etxe bila nabil, unifamiliarra, adosatua edo txaleta. Alokatzeko edo erosteko. Deba Bailaran edo inguruetan. 130 m<sup>2</sup> izan behar ditu gutxienez, jardina eta garajea. 76 91 30.
- Deba Garaian 60 m<sup>2</sup>ko apartamentua erosteko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

### 3. Errentan emateko

- Apartamentua alokatzen da Torreviejan, hileka edo 15 eguneka. Playa del Curaren ondoan dago. Tel.: 79 32 54.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxea edo txaleta alokatuko nuke Bergara, Deba edo Elorrio aldean. Tel.: 76 91 30. Daniela.
- Arrasaten etxea alokatuko nuke. Tel.: 79 99 23.

### 5. Etxe konpartituak

- Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.
- Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Uribarri etorbidean garaje itxia salgai. Tel.: 79 60 96.

### 9. Errentan emateko

- Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 13 52.

## ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

## GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

## DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdtu
- Aurkitu
- Bestelakoak

## HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## LOKALAK

### 12. Saldu

- Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

- Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

- Ferreriasen 200m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Gaueko 9etatik aurrera. Tel.: 79 77 13.

### 14. Errentan emateko

- Biltegi bezala erabiltzeko 34 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

- Ura eta indarra duen lokala alokatzen da. Tel.: 79 76 95.

### 15. Errentan hartzeko

- Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

### 16. Bestelakoak

- Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

- Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

## LANA

### 17. Eskaintzak

- Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

- Etxeko lanak egin edo atarteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

- Arratsalde umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

- Arratsalde etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

- Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

- Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

- Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Esperientziadun neska gertu, dena, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

- Esperientzia eta arduradun emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tel.: 79 05 90.

- Arratsalde lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

### 18. Eskaerak

- Etxeko lanak egiteko emakumea behar da Bergaran. Tel.: 76 91 30.

- 30 urte inguruko neska behar dut etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

- Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio baxuko berifikazioak egiteko. Tel.: 937 41 89 71. Santi.

### 19. Bestelakoak

- Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

- Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

- Titulodun irakaslea LH eta DHBH-ko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Marijo.

- EGB, REM, eta ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 55 11.

### 21. Eskaerak

- Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisis, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

- Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsalde edo gauez. Tel.: 79 55 04.

- Zergatan aditua den laguna behar



da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. 8.000 km. Egoera ona. Tel.: 76 64 70.

• Egoera onean dagoen Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Olga.

• Fiat Regata autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 25 19.

• Suzuki RF-50 motorra salgai. Tel.: 79 62 50. Ander.

• Lada Niva kotxea salgai. Tel.: 79 66 52.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Peugeot 205 TD salgai, SS-AM. ITVa 99ra arte pasatuta. Prezio interesgarria. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Renault 11 TXE salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Vespa 200 motorra salgai. VH. Tel.: 76 08 51.

• Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

• Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m, Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Dynastar skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Cort Luxe gitara elektrikoa gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

• Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

• Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gaineen jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

• Ingalaterrara bidaia 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

• Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

• Soprani markako soinu daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.

• Oso gutxi erabilitako jangela, butaka-oheta, somierra eta koltxoia salgai. Mesanotxea eta armairua opari. Tel.: 79 22 92.

• Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko seaska bat egotera onean erosiko nuke. Tel.: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

### 31. Galdu

• Betaurreko graduatuak galdu nituen astelehenean, martxoaren 3an, Iturripeko iturri inguruan arratsaldeko 3.30etan. Tel.: 79 39 16.

### 32. Aurkitu

• Joan den igandean Zaldibarren mendiko bizikleta ahaztuta utzi bazenuen deitu Ertzaintzara edo Udaltzaingora.

## HARREMANAK

### 36. Deialdiak

• Martxoaren 22an, 1934an jaiotakoek bazkaria egingo dute. Eguerdiko ordu batean meza San Frantziskon eta 2.30etan Udalpen bazkaria. Izene-matea: Bengoa tabernan. 2.000 pta.

### 37. Denetarik

• Asteleheneetik ostiralera Leioara joan behar dut eguerdiko 3etarako eta 8etan bueltatzeko. Nirekin kotxean joateko interesaturik bazaude dei egin 79 48 83 telefonora, gastuak erdibana egingo ditugu.

**Hemendik edo handik ikusi, auto handi bat aurkituko duzu.**



Martxoaren 14 eta 15ean, **4 atedun ALMERA** berriaren aurkezpenean gurekin batera zure NISSAN kontseziarioan egon zaitezten gonbidatzen zaitugu. AIRE EGOKITUA duen **4 atedun ALMERA 1.6 GX** baten zozketan parte hartuko duzu, eta erostea erabakitzen baduzu, 7 maletako joku bat oparituko dizugu.

**EZ GALDU AUKERA HAU! ZURE ZAIN GAUZKAZU!**

ESKAINITZA BALIAGARRIA STOCKEAN DAUDEN AUTOENDAKO




**ALDIBI AUTOAK, S.A.**  
ZIGORROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20.500 ARRASATE





## ■ Iban Gonzalez

EKON MUSIKA TALDEKO ABESLARIA



txuri batean.

**4. Zure akats bat/gauza on bat?**

Urduritasuna/Leialtasuna.

**5. Zerk lotsarazten zaitu?**

Batzuen hipokresia.

**6. Amets bat? Bakea**

eta askatasuna.

**7. Zer kenduko zenuke mundutik?**

Errepresio mota guztiak.

**8. Gertakizun historiko bat? Woodstock-eko jaialdia.**

**9. Nor miresten duzu?**

Gurasoak.

**10. Zeri diozu beldurra?**

Beldurrari.

**11. Zertaz damutzen zara?**

Maite dudan lagunari min emateaz.

**12. Negar egin duzun azken aldia?**

Txiri-ren omenaldian.

**13. Zer falta zaio Arrasateri? Portua**

eta hondartza.

**14. Eta zuri? Txalupa.**

**15. Lanbidez aldatzekotan?**

Sormenekoa den edozein.

**16. Arrasateko gustoko toki bat?**

Udalatx gaina.

**17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?**

Hegoameriketara joatea ni bakarrik.

**18. Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Euskaldunon Egunkaria.

**19. Gustoko janari bat? Amaren baba gorriak.**

**20. Liburu on bat? Herman Hess-en Sidharta.**

**21. Filmerik onena/txarrena? El color de la noche/Condemor, el pecador de la pradera.**

**22. Musika talderik onena/txarrena? Red Hot Chili Peppers/Ana Obregon eta Ramon Garcia.**

**23. Telebistako programarik onena/txarrena? Metrópolis/Día a Día**

**24. Egin dizuten oparirik politena? Besarkada eta muxu bat momentu konkretu batean.**

**25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Ensaiazen eta lagunekin taberna zuloan.**

**26. Oporretarako toki bat? Lekeitio.**

**27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Komuna garbitzea.**

**28. Gomendio bat? Sekula ez saldu lagunik.**

**29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Maite dudan edonorgatik.**

**30. 200 milioi irabaziz gero? Inbertitu beste 200 lortzeko.**

**2** 3 urte ditu eta atxabaltarra da. Batxilergo Tekniko Industrialia egin eta gero, irati eta telebistan graduatu zen. Orain Fagorren dabil lanean eta Ekon taldean kantuan orain bi urtetik. Taldea fin dabil.

1. Zein da zure horoskopoa? Cancer.
2. Sinestuna zara? Ez.
3. Animalia bihurtzekotan? Arrano

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76



Erakusketa eta almazena:  
Kale Txiki, 3 - behea  
Tel.: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE

### Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA


**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



**IBABE**  
**GARAJEA**


**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78





### **Super 55ak puntuak batzen ditu hilero**

Super 55 baten titularra bazara, prestatu zaitez primeran pasatzeko. Beti bezala aurreztuta, opari seguruak eskuratuko dituzulako. Bidaiak, opariak, hoteletako egonaldiak... Zozketarik gabe. Eperako diru-ezarpenik egin beharrik gabe. Zuzen-zuzenean, hilero, zure Super 55ak puntuak batuko ditu, interesak pilatzen dituen bezala, eta lortutako puntu guztiez aldiro-aldiro informatuko zaitu. Oso erraza da. Super 55ak egingo du dena.

### **Zenbat eta gehiago aurreratu, orduan eta puntu gehiago.**

Hilean batzbeste saldoan duzun 40.000 pta. bakoitzeko, zure Super 55ak 2 puntu emango dizkizu. Hona hemen adibide bat: Demagun zure libretak batz beste 400.000 pta.ko saldoa duela. 40.000 pta. bakoitzeko 2 puntu ematen badizkizu, hilabete horretan 20 puntu pilatuko dituzu. Hurrengo hilean saldo berarekin jarraitzen baduzu, beste 20 puntu bilduko dituzu. Eta 12 hilabeteren buruan, 240 puntu izango dituzu guztira. Orain, pentsa ezazu zenbat puntu lor ditzakezun zure aurrezkiak handituz joaten bazara. Hilean batz beste zenbat eta saldo handiagoa izan, orduan eta puntu gehiago.

### **Super 55ak interes gehiago ematen dizu.**

Super 55arekin sari seguruez eta zure aurrezkien interesez gozatuko duzu. Super 55ak beste edozein libreta arruntek baino interes handiagoa ematen dizu.




**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



## ■ Horoskopoa

- **Aries** Keinu arraroak egiten dituzu begiekin.
- **Taurus** Sekula erretiratuko ez den juer-gazale bat zara.
- **Gemini** Urduritasuna alde batera utzi beharko duzu lehenbailehen.
- **Cancer** Eguzkiak berotzen duen arren, zu inoiz baino hotzago zaude.
- **Leo** Zenbat eta gehiago pentsatu orduan eta nahaste handiagoa.
- **Virgo** Lanean kolokan, amodio kontutan zalantzan... Ai ama!
- **Libra** Zure jenioarekin guztia garraztuko zenuke.
- **Scorpio** Begiekin egiten dituzun keinu horiek arriskutsuak dira.
- **Sagittarius** Ezin da sinistu zure jokera, benetan kezagarria.
- **Capricorn** Ezetz diozu, baina azkenean amore ematen duzu.
- **Aquarius** Ametsak horixe dira: amets. Errealitatea desberdina da.
- **Piscis** Aingerutxo bat baino hobea zara.

## ■ Gurutzegrama




JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Arrazoimenari dago-kiona. 9. Ogibitarteko. 10. Alfabetoko bigarren letraren izena. 11. (Ald.) Akusatu aditzaren infinitiboa. 12. Ez bakarrik (juntagailua, *ere* hitza eskatzen duena). 14. Bibliako Jakoben emaztea. 15. *Izadiko* kontsonanteak. 16. Titanioa. 17. Txikitan zirikatzen den oilasko. 19. Norbaitek izandako zorte txarra.

**Bertikalak** 1. *Pitote* irautzailearen izena. 2. Futbolean atea zaintzen duena. 3. Zamorako ibilgailuetan. 4. Su eman, piztu. 5. (Ald.) Jupiterren laugarren satelitea. 6. Nik. 7. Arrasateko Korporazio Kooperatiboa. 8. Lotan ematen den denbora. 13. Europako Komunitatea. 15. Iso. 18. Italiako ibairik garrantzitsua.

**Horizontalak:** 1. Razonial. 9. Oiarreko. 10. Be. 11. (Ald.) Akusa. 12. Ezezik. 14. Rakel. 15. Zd. 16. 13. EK. 15. Zo. 18. Po.  
**Bertikalak:** 1. Roberto. 2. Aiezain. 3. Za. 4. Irizet. 5. (Ald.) Kalisto. 6. Neuk. 7. AKK. 8. Loaldi. 11. 17. Kapot. 19. Ondiko.

HURBILDEN ZORAGARRIA KABARET MUNDURA



*A flor de piel*

SEXY SHOW

✱ MARTXOAN ✱ MARTXOAN ✱ MARTXOAN ✱

**Martxoak 22** Larunbata

Gaueko 11.30etan ateak  
zabalduko dira

ikuskizuna 12etan hasiko da.

Sarrera: 1.500 pta + Codorniu kopa bat



**jam**  
aretoa

B E R G A R A



# Arrasate Aretxabaleta Eskoriatza Leintz-Gatzaga

## ORAINDIK DENBORAZ ZAUDE!

Zure telefonoa agertzen ez bada  
edo akatsik aurkitzen baduzu dei  
egin datorren asteko asteartea  
baino lehen 77 08 15 telefonora edo  
zatoz ARKOra

(Otalora Lizentziatua, 31).

**MARTXOAREN 21**ean egon  
litezkeen akatsen zuzenketa  
orri bat argitaratuko dugu.  
Mila esker.

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

# Zure telefonoaren lagunik onena!





## Kukaratxa Motel saioan Port Aventura-ra bidaia jokoan

Datorren ostegunean Kukaratxa Motel lehiaketan finalera pasatzea lortu duten bi taldeek Port Aventura-ra bidaia irabazteko aukera izango dute. *Akaperokonku* eta *Ziklos Monster* taldeko neska-mutilak nor baino nor arituko dira ostegunean zuzenean emitituko den lehiaketan.

Gainera, ikus-entzuleek ere izango dute zer irabazi: telefono bidez egingo den lehiaketan Milar Elkorok eskeinitako *walkmanak* banatuko dira. Emozioa ez da faltako Unai, Betirtzek eta Agustinek egiten duten lehiaketa zoragarri honetan!

### Arrasate Irratia FM 107.7

#### Egunero

9.00 Albisteak  
9.30 Goizoro magazina  
14.30 Bixau orduan

#### Astelehena

22.00 Caravanserai  
musika saioa.

#### Asteartea

22.00 Euskal Festa:  
Euskal tribuak lehen eta orain.

#### Asteazkena

22.00 KK2A

#### Osteguna

21.00 Adi Egon  
22.00 Txerrendantza

#### Ostirala

22.00 KGB informatika  
saioa

#### Larunbata

9.30 Jailarai umeendako  
saioa.  
10.00 Bi zoro eta zu.  
Magazina.  
11.00 Zoroklasikoak  
musika klasiko saioa.

### ■ ATBko asteko programazioa

14 Ostirala	17 Astelehena	18 Asteartea	19 Asteazkena	20 Osteguna	21 Ostirala
20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	13.30 <b>Astebete</b> (Errep.)	13.30 <b>Mondrasport</b> (Errep.)	13.30 <b>Lotsa Barik.</b> (Errep.)	13.30 <b>Nire objetibotik.</b> (Errep.)	13.30 <b>Kukaratxa Motel (errep.)</b>
21.30 <b>Astebete.</b> 97ko udal aurrekontuak.	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	20/20.30 <b>Berriak</b>	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>
	21.30 <b>Mondrasport</b>	21.30 <b>Lotsa Barik.</b> Gonbidatua: Unai Iturriaga bertsolaria.	21.30 <b>Bertso saioa.</b> Martxoak 8 egitarauko bertso saioa Sebero Altuben.	21.30 <b>Kukaratxa Motel.</b> Finala zuzenean!	21.30 <b>Astebete</b>

### TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62

### BiRiBiL

**Edari eta tabakotan  
espezialistak**

Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo  
handiko erropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82



# VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ■ Tel.: 79 78 10 ■ ARRASATE  
Ibargarai, 24 ■ Tel.: 76 12 21 ■ BERGARA

*Zure ongizatea  
babesteko gaude*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

# ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik  
handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean,  
merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**





**Mondeo**



**Fiesta**



**Escort**



**Galaxy**

*Udaberriko  
Ford gama  
berria.  
Zatoz martxoko  
eskaintza bereziak  
ezagutzera!*



**Explorer**



**Ka**



**Maverick**

***Laster Ford  
Puma berria  
Mugarrin!***



Zerbitzu osoa: • Tailer mekaniko integrala • Karrozeria • Biltegia • Alokairu zerbitzua • Furgonetak eta turismoak



**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxa: 79 62 54